# JUZGADO DE LO CONTENCIOSO ADMINISTRATIVO Nº 3 DE BILBAO
# BILBOKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN 3 ZK.KO EPAITEGIA

BARROETA ALDAMAR 10-5ªPLANTA - C.P./PK: 48001

Tel.: 94-4016704
Fax: 94-4016990

N.I.G. P.V./ *IZO EAE*: 48.04.3-12/001026
N.I.G. CGPJ / IZO BJKN :48.020.45.3-2012/0001026
**Proced.abreviado / Prozedura laburtua 187/2012**

**Demandante / *Demandatzailea***: BRESIER S.L.
**Representante / *Ordezkaria***:

**Administración demandada / *Administrazio demandatua***: AYUNTAMIENTO DE GETXO
**Representante / *Ordezkaria***: ALVARO PINDADO VILLODAS

**ACTUACION RECURRIDA / *ERREKURRITUTAKO JARDUNA***:
RESOLUCION 19/2012 DE 20.01.2012 DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO EN EXPDTE 111.263 DESESTIMANDO REPOSICION CONTRA PROVIDENCIAS DE APREMIO Y EMBARGO ACUMULADAS EN DICHO EXPEDIENTE.

D./Dª. FRANCISCO JAVIER SANCHEZ SINOVAS, Secretario Judicial del Juzgado de lo Contencioso Administrativo nº 3 de Bilbao.

**CERTIFICO:** Que en el recurso contencioso - administrativo número 187/2012, se ha dictado auto de desistimiento del siguiente contenido literal:

Nik, FRANCISCO JAVIER SANCHEZ SINOVAS Bilboko Administrazioarekiko Auzien 3 zk.ko Epaitegi(e)ko idazkari judiziala naizen honek,

**ZIURTATZEN DUT:** 187/2012 zk.ko administrazioarekiko auzi-errekurtsoan, atzera egitea onesten duen autoa eman da, eta hurrengoa dio, hitzez hitz:

## AUTO Nº / AUTO -ZK.: 14/2014

**D./Dña. FERMINA PITA RASILLA**

En BILBAO (BIZKAIA), a trece de febrero de dos mil catorce.

**FERMINA PITA RASILLA jauna/andrea**

BILBAO (BIZKAIA)(e)n, bi mila eta hamalau (e)ko otsailaren hamahiru(e)an.

### ANTECEDENTES DE HECHO

**PRIMERO.-** El presente recurso contencioso-administrativo contra la actuación administrativa referenciada, ha sido iniciado por BRESIER S.L., por demanda de procedimiento abreviado.

**SEGUNDO.-** Admitida a trámite la demanda se ha señalado para la celebración de la vista el día 13 de febrero de 2014 a las 10:15 horas, citándose a las partes para dicho acto y a la parte demandante

### AURREKARIAK

**LEHENENGOA.-** Aipatutako administrazio-jardunaren aurkako administrazioarekiko auzi-errekurtso hau BRESIER S.L.(e)k hasi zuen prozedura laburtuko demanda bidez.

**BIGARRENA.-** Demanda izapidetzeko onartuta, ikustaldia egiteko eguna eta ordua finkatu dira, 2014ko otsailaren 13an, 10:15ean, alderdiei ikustaldirako zitazioa egin zaie, eta alderdi

con la advertencia de que si no comparecía se le tendría por desistido del recurso.

**TERCERO.**- El día señalado para la vista no ha comparecido al acto la parte demandante.

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

**ÚNICO.**- Dispone el artículo 78.5 de la Ley de la Jurisdicción Contencioso-administrativa (LJCA), que si las partes no comparecieren o lo hiciere sólo el demandado, se tendrá al actor por desistido del recurso y se le condenará en costas, por lo que en el presente caso, no habiendo comparecido el actor, ni alegada causa alguna que justificara su inasistencia, procede tenerle por desistido del recurso, con expresa imposición de las costas causadas.

## PARTE DISPOSITIVA

1.- Se tiene por desistido a BRESIER S.L. del presente recurso contencioso administrativo interpuesto contra la actuación administrativa referenciada.

2.- Se imponen al actor las costas causadas.

3.- Una vez firme esta resolución procédase al archivo de los autos y a la devolución, en su caso, del expediente administrativo a su oficina de procedencia.

MODO DE IMPUGNAR ESTA RESOLUCIÓN: mediante RECURSO DE APELACIÓN EN UN SOLO EFECTO, por escrito presentado en este Juzgado en el plazo de QUINCE DÍAS, contados desde el siguiente a su notificación (artículo 80.1 de la LJCA), y previa consignación en la Cuenta de Depósitos y Consignaciones de este órgano jurisdiccional en el Banco Santander, con nº 47590000850187/12, de un **depósito de 50 euros**, debiendo indicar en el campo concepto del documento resguardo de ingreso que se trata de un "Recurso".
Quien disfrute del beneficio de justicia gratuita, el Ministerio Fiscal, el Estado, las Comunidades Autónomas, las entidades locales y los organismos autónomos dependientes de todos ellos están exentos de constituir el depósito (DA 15ª LOPJ).

demandatzaileari ohartarazi zaio agertzen ez bada errekurtsoan atzera egin duela ulertuko dela.

**HIRUGARRENA.**- Ikustaldirako jarritako egunean, alderdi demandatzailea ez da agertu ekitaldian.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

**BAKARRA.**- Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legeko (AAJLko) 78.5 artikuluak xedatzen du, alderdiak agertzen ez badira, edo demandatua bakarrik agertzen bada, auzi-jartzaileak errekurtsoan atzera egin duela joko dela, eta kostuak ordaintzera kondenatua izango dela, eta, beraz, kasu honetan, auzi-jartzailea agertu ez denez, eta ez agertzea justifikatzeko arrazoirik alegatu ez duenez, bidezkoa da errekurtsoan atzera egindakotzat hartzea, eta sortutako kostuak berari ezartzea espresuki.

## XEDAPENAK

1.- Atzera egindakotzat jotzen da BRESIER S.L. aipatutako administrazio-jardunaren aurka jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtso honetan.

2.- Prozesuan sortutako kostuak auzi-jartzaileak ordaindu beharko ditu.

3.- Ebazpen hau irmo bihurtzen denean, artxiba bitez autoak eta, kasua bada, itzul bedi administrazio-espedientea jatorriko bulegora.

EBAZPEN HAU AURKARATZEKO MODUA: ONDORE BAKARREKO APELAZIO-ERREKURTSOA JARRITA. Horretarako, idazkia aurkeztu behar da epaitegi honetan, HAMABOST EGUNEKO epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik kontatzen hasita (AAJLko 80.1 art.). Bestalde, errekurtsoa jartzeko, aldez aurretik **50 euroko gordailua** eratu behar da. Horretarako, jurisdikzio-organo honen gordailu eta kontsignazioen kontuan sartu behar da zenbateko hori (Banco Santander banketxeko 47590000850187/12 zenbakiko kontuan), eta, dirua sartu izanaren agirian, kontzeptuaren eremuan, "Errekurtsoa" dela zehaztu.
Doako laguntza juridikoa dutenek, Fiskaltzak, Estatuak, autonomia erkidegoek, toki-erakundeek eta azken hiru horien mendeko erakunde autonomoek ez dute gordailua eratu beharrik izango errekurtsoa jartzeko (BJLOko 15. xedapen

gehigarria).

Lo acuerda y firma el/la MAGISTRADO, doy fe.

Hori erabaki eta sinatu du MAGISTRATUAak. Fede ematen dut.

EL/LAMAGISTRADO / MAGISTRATUA

EL SECRETARIO JUDICIAL / IDAZKARI JUDIZIALA

Lo anteriormente reproducido concuerda bien y fielmente con el original a que me remito. Y para que así conste, libro el presente en BILBAO (BIZKAIA), a trece de marzo de dos mil catorce.

Azaldutakoa zeharo bat dator jatorrizkoarekin, eta hari lotzen natzaio. Eta jasota gera dadin, lekukotza hau egiten dut BILBAO (BIZKAIA)(e)n, bi mila eta hamalau (e)ko martxoaren hamahiru(e)an.